

## Datu Pertsonalen Babesa

### Nire datu pertsonalak Deuseztatzeko Eskubidea erabiltzea

Fitxategiari eta bere arduradunari buruzko datuak (eskubidea arduradun horren aurrean erabiliko da)

Fitxategiaren edo fitxategien izena					
Organo Arduradunaren izena					
Kalea		Zk.		Pisua	
Herria		Lur. Histor.		Posta Kod.	

### Eskaeragilearen datuak

Abizenak					
Izena		NAN			
Kalea		Zk.		Pisua	
Herria		Lur. Histor.		Posta Kod.	
Tel.		Posta elektronikoa			

### Legezko ordezkariaren datuak (adin txikikoen edo ezinduen kasuan)

Abizenak					
Izena		NAN			

**Datuak deuseztatzeko dudan eskubidea erabili nahi dut,** datuen babesari buruzko araudian ezarritakoaren arabera. Horretarako:

- Deuseztapena justifikatzeko dokumentazioa eranstean dut
- Lehenago emandako baimena baliogabetzen dut, eta ez dut dokumentazio gehigarririk eranstean

### Honakoa eskatzen dut:

- 1) aipatutako fitxategian/fitxategietan dauden **niri buruzko datu guztiak deuseztatzea**
- 2) eskatutako deuseztapena **jakinaraztea niri**
- 3) deuseztapena **jakinaraztea** datuak komunikatu zaizkien fitxategien arduradunari, eurak ere dagozkion aldaketak egin ditzaten.

Tokia eta eguna	
Eskaeragilearen sinadura	

## Azalpenak

- Fitxategi batean dauden datu pertsonalak deuseztatzeko eskabidea, datuak zuzentzeko edo osatzeko asmoz zure datuak tratatzeko aginpidea duen Administrazioaren arduradunaren aurrean egiten da. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ez dauka fitxategian dagoen informazioaren berri eta fitxategien izenari, fitxategien arduradunei eta arduradun horien helbideei buruzko informazio besterik ez du.
- **Fitxategiaren arduradunaren helbidea zein den ez badakizu, Datuak Babesteko Euskal Bulegora jo dezakezu** eta informazio hori eskatu 945 016230 telefonoan, [avpd.@avpd.es](mailto:avpd@avpd.es) posta elektronikoan, edo [www.avpd.es](http://www.avpd.es) web orriaren bitartez

## Galdetegia betetzeko argibideak eta idazkiarekin batera eman beharreko dokumentazioa

- Beharrezkoak dira izena, abizenak eta NANren fotokopia, edo pertsona identifikatzeko zuzenbidean baliagarria den beste edozein bitarteko.
- Interesduna adin txikikoa edo ezindua bada, legezko ordezkariaren datu horiek ere beharrezkoak dira. Kasu honetan, gainera, legezko ordezkariak egiaztatzen duen benetako agiria ere aurkeztu beharko da.
- Beharrezkoak dira jakinarazpenetarako helbidea, data eta interesdunaren sinadura.
- **Beharrezkoa da deuseztapena justifikatzeko dokumentazioa ere gehitzea** edo, hala badagokio, lehenago emandako baimena baliogabetzea.

## Prozeduraren baldintzak, eskubidea erabiltzen duenarentzat

- Frogei begira, komeni da idazkiaren bidalketa egiaztatzea, errekeritutako administrazioaren erregistroko sarrera zigiluaren bidez, edo bidalketa posta ziurtatu bidez egin izanaren frogagiriaren bidez.

## Prozeduraren baldintzak, fitxategiaren arduradunarentzat

- Arduradunak eskaeragileari erantzun egin beharko dio, eskabidea jasotzen den egunetik **gehienez ere 10 eguneko epean**.
- Epe horretan deuseztapen eskabideari berariaz erantzun ezean, eskaera ukatutzat eman beharko da.
- Deuseztapen eskubidearen eskabidea onetsi egiten bada, arduradunak **deuseztatu egin beharko ditu datuak, eskabidea jasotzen den egunetik hamar eguneko epean**. Deuseztatzeak esan nahi du **datuak fisikoki ezabatuko direla**, hala egitea erabat ezinezkoa ez bada, behintzat; datuak ezin badira ezabatu, arduradunak blokeatu egingo ditu datuak, horien erabilera eta tratamendua ekiditearren.
- Datuak deuseztatzea **doakoa** da.

## Aplikatu beharreko araudia

- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa, 16. artikulua
- 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, datu pertsonalen fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa, 8.artikulua
- 308/2005 Dekretua, urriaren 18koa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duena, 9. artikulua
- 1720/2007 Errege Dekretua, 23., 24., 25., 26., 31., 32., 33. artikulua

## Erreklamazioak (Eskubideen babesa)

- Eskaeragilearen ustez, bere datuak deuseztatzeko eskubidea behar bezala erabiltzeko aukera eman ez bazaio, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari eska diezaioke **bere eskubideak babesteko prozedurari ekiteko**.
- Horretarako, nahitaezkoa izango da deuseztapen eskubidearen eskabidea egin zenetik 10 egun pasatzea, eta epe horretan berariazko erantzunik ez jasotzea.
- Erreklamazioa Datuak Babesteko Euskal Bulegoari zuzenduko zaio (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71, 3º - 01008 Vitoria – Gasteiz - Tel. 945 016 230 - Fax. 945 016 231 [avpd@avpd.es](mailto:avpd@avpd.es) - [www.avpd.es](http://www.avpd.es) ), eta ondorengo agirietako batzuk eman beharko dira:
  - Eskatutako deuseztapenari fitxategiaren arduradunak emandako ezetza.
  - Deuseztapen eskabide-ereduaren kopia, fitxategiaren erakunde arduradunaren **sarrerako erregistroak zigilua jarrita**.
  - Posta ziurtatu bidez egindako bidalketaren frogagiriaren kopia edo, eskabidea posta arruntez bidali bada, postetxean kopiari zigilua jarrita.